

Hauskortasun psikologikoaren definizioa eta ebaluazioa zahartzaroan: hauskortasun multidimentsionala, bakardadea, antsietatea eta depresioa ebaluatzeko tresnen eraikuntza eta egokitzapena

Tesiaren egilea: Joanes Lameirinhas Ortuoste

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia

Doktorego-programa: Psikologia

Jakintza-arloa: Portaera Zientzien Metodologia

Tesi-zuzendaria: Arantxa Gorostiaga Manterola eta Igone Etxeberria Arritxabal

Tesiaren laburpena:

Hauskortasunaren kontzeptuak interes handia piztu du gerontologiaren arloan. Osasun-ondorio kaltegarriak pairatzeko muturreko zaugarritasun-egoera gisa definitzen da, eta egun aldeztu da konstruktua gutxienez hiru dimentsio barne hartzen dituela: fisikoa, psikologikoa eta soziala. Hauskortasun fisikoaren eta sozialaren kontzeptualizazioa eta neurketa hainbat autorek landu dituzte, baina hauskortasun psikologikoak ez du arretarik jaso. Gainera, osasun-ondorio kaltegarrien auresale indartsua denez, hauskortasuna modu zehatz eta egokian detektatzeko beharra agerikoa da. Haatik, gaurdaino eraikitako tresnek ez dituzte hauskortasunaren bueltan proposaturiko dimentsio teoriko guztiak ebaluatzen edota ez dute ezaugarri psikometriko egokirik agertu.

Hutsune horietatik abiatuta, doktore-tesiak bi helburu nagusi zituen: (1) Hauskortasun psikologikoaren definizio zehatz bat formulatzea; eta (2) Definizio hori kontuan duen eta hauskortasunaren dimentsio teoriko guztiak barne hartzen dituen ebaluazio-tresna bat euskaraz eta gaztelaniaz eraikitzea.

Lehenengo helburuari heltzeko irismen-berrikuspen bat egin zen, eta hauskortasuna neurtzeko tresnetan jaso izan diren aldagai psikologikoak identifikatu ziren. Emaitez agerian jarri zuten ez dagoela hauskortasun psikologikoaren definizio argirik, eta askotariko aldagaiak baliatuz operazionalizatu izan dela. Horrek sor ditzakeen arazo kontzeptualengatik, hauskortasun psikologikoaren dimentsioaren baitan bi azpi-dimentsio bereiztea proposatzen dugu (kognitiboa eta afektiboa), eta bakoitzarentzat definizio zehatz bat ematen dugu.

Bigarren helburuari dagokionez, Hauskortasun Multidimentsionalaren Eskala (HME) izeneko tresna eraiki zen, eta ondorengo ondoko lau ikerketa egin ziren hari buruzko baliozkotasun-ebidentziak biltzeko. Hasteko, ebaluazio-tresna 26 adituk ebaluatu zuten. Gero, tresna aurretatu zen 47 adinekorekin. Ondoren, ikerketa pilotu bat egin zen 106 partaiderekin. Amaitzeko, tresnaren aplikazio esperimental

egin zen 484 adinekok osatutako lagin batekin. Emaitez erakutsi zuten HME tresnaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak fidagarriak eta baliozkoak direla hauskortasun fisikoa, kognitiboa, afektiboa, soziala eta ingurunekoa ebaluatzen adinekoetan.

Hauskortasunaz gain, bakardadea, antsietatea eta depresioa ere nahiko prebalenteak dira adinekoengan eta horiek ebaluatzea garrantzitsua da gerora beharrezko kasuetan esku hartzeko. Kontuan izanda pertsonak beren ama-hizkuntzan ebaluatzearen garrantzia eta euskaraz balioztatutako ebaluazio-tresnen urritasuna, doktore-tesiaren beste helburu bat izan zen De Jong Gierveld-en Bakardade Eskala eta Goldberg-en Antsietate eta Depresio Eskala euskarara egokitzea. Horretarako, ondoz ondoko zenbait ikerketa egin ziren, HMEren kasuan egindakoen antzekoak. Emaitez erakutsi zuten bi tresnen euskarazko egokitzapenak ezaugarri psikometriko egokiak dituztela eta, beraz, bakardadea, antsietatea eta depresioa modu zehatz eta baliozkoan ebaluatzen erabil daitezkeela.